

## PILOTA

Erabakita daude  
zestako Euskal  
Herriako Kopako  
finalerdiak

A.U. / DONOSTIA

Uriarte-Kastro, Jauregi-Unanue, Etxalus-Felix eta Konpa-Elizegi dira zestako Euskal Herria Kopako finalerdiak jokatu dituzten lau bikoteak. Kanporatuta geratu dira Remen-Arkarazo eta Altuna-Goitia. Asteburu honetan jokatu da txapelketako ligatxoko azken jardunaldia. Uriarte-Kastro aurretik sailkatuta bazen, beste hiru bikoteak asteburu honetan erabaki dira. Atzo Gernikan Jauregi eta Unanuek 35-26 irabazi zieten Altuna-Goitiaz. Altuna eta Goitia jada sailkatuta zeuden, Altuna-Goitiak bazeukaten sailkatzeko aukera bat baina horretarako 24 puntuko aldeaz irabazi behar zuten atzo. Remen-Arkarazo bikoteak ere bazituen sailkatzeko aukerak baina galdu egin zituen asteburuan jokaturako bi partidua.

## ARRAUNKETA

Getaria eta  
Illunbe lehen  
garaileak

RAMON BASALDUA / BILBO

Getaria eta Illunbeko traineruak nagusitu ziren asteburu honetan jokaturako Hernani eta Fortuna Ikurrinetan. Getariako ontziak hasiera ezin hobea eman dio denboraldiari eta Mutrikun eta Getarian jokaturako estropadak irabazi ondoren, urteko aurreneko Ikurrina eskuratu zuen Urumean Hernaniko traineruaren aurretik.

Hamasei ontzik hartu zuten parte igande goizez Kontxako badian jokatu zen Fortuna Ikurrin. Txintxerpeko Illunbe arraun taldeko ontziak hasiera hasieratik hartu zien aurrea laugarren txandan aurkari izan zituen Hernani, Getaria eta Koxtapari eta ez zien inolako aukerarik eman. Pasai San Pedroko Kalpartak irabazi zuen hirugarren txanda, Santiagotarrak-eko trainerua izan zen garaile bigarrenean eta Elantxobe aurrenekoan.

Munduko

III. Rugby Txapelketa

## Hamar entseiu

Zeelanda Berriak finalerako txartela lortu du joko handia erakutsiz

## 45 ZEELANDA BERRIA:

Dowd-Fitzpatrick-Brown, Jones-R.Brooke, Brewer-Z. Broole-Kronfeld, Bachop-Mehertens, Lomu, Little, Bunce, Wilson, Osborne. Aldaketak: Larsen Zizan Brookeren ordez (64. min.)

## 29 INGALATERRA:

Leonard-Moore-Ubogu, Johnson-Bayfield, Rodber-Richards-Klarke, Morris-Andrew, R. Underwood, Guscott, Carlig, T. Underwood, Catt

● Puntuak: 5-0 Lomuren entseia (2. min.). 10-0 Kronfelden entseia (5. min.). 12-0 Mehertensen transformaketa. 15-0 Mehertensen zigor kolpea (12. min.). 18-0 Zinzan Brookeren Dropa (20. min.). 25-0 Lomuren entseia (25. min.). 25-3 Andrewren zigor kolpea (37. min.). 30-3 Lomuren entseia (41. min.). 35-3 Bachopen entseia (50. min.). 35-8 R. Underwooden entseia (60. min.). 35-12 Andrewren transformaketa. 35-15 Andrewren zigor kolpea (68. min.). 40-15 Lomuren entseia (70. min.). 42-15 Mehertensen transformaketa. 42-22 Carlingen entseia (72. min.). 45-22 Mehertensen Dropa (77. min.). 45-29 R. Underwooden entseia (80. min.).

KOLDO AIDUNTZIN / DONOSTIA

Zeelanda Berriak Munduko III. txapelketaren finala jokatu du Hego Afrikaren kontra datorren larunbatean, Johannesburgeko Ellis Parken 15.00etan. Ingalaterra ezustean harrapatu zuen lehen zatian eta ez zen gauza izan aurre egiteko. Bigarren zatian markagailua apaindu zuen arren, 45-29 galdu zuen. Hego Afrika azken bost minutuetan arrisku bizian egon bazen ere, historiako lehen finala jokatu du, 19-15eko emaitzaz Frantzia kanporatu ondoren. Hortaz, ostegunean jokatu da 3. posturako neurketa Frantzia eta Ingalaterraren artean, Capen.

Mundialeko finalerdi batean lortu den puntu kopuru handiena gertatu zen Zeelanda Berria eta Ingalaterraren arteko norgehiagokan, 74 puntu. Finalerdietako datuekin jarraituz, entseiu gehien ere, igandean egin zituzten, 10 guztira, 6 zeelandarrek eta 4 ingelesek. Gehixeago zehaztearren, ALL BLACKSEK lortu zuen puntu gehien eta alde zabalena, 87ko aurreneko Mundialean Brisbanen, 49-6 irabaziz Galesi.



Wilson zeelandarra bizi aritu zen Carlinegek plakatu arren.

Kontu hauek guztiak, beraz, Zeelanda Berriaz hitz egitera behar izan gaituzte. Ait Blacksek nahikoak izan zituen norgehiagokan zehar benetan jokatu ziren 27 minutuetatik 14, horietan egin baitzituen entseiuetan amaitu ziren jokaldi ikusgarriak. Aurrelari zeelandarrek etengabeko presioa egin zuten lehen zati osoan, uztartze itxietan zein joko irekiko bilketetan, Ingelesak bezain gogorrak eta indartsuak zirela erakutsiz.

Era berean, lehenak iristen ziren kontrarioarekin topo egin behar zen jokaldi guztietara. Erraz gainditzen zituzten arrosakoak erasoko jokaldietan, izugarritzko abiaduraz jokatu. Mo-

du horretan egin zituzten sei entseiuak. Lehenengoa, nola ez, Jonah Lomu hegalek eginikoa, historian ikusi den jokaldi ikusgarrienak. Bilketatik baloia jaso, Lomuri helarazi baloia, eta Underwood, Carling eta Catt gaindituz, entseia.

Hain zen nabarmena beltzen nagusitasuna, Zinzan Brooke 3. lerroak 40 metrotik gauzatu baitzuen dropa. Horrelakorik gertatu denik, guk behinik behin, ez dugu gogoratzen. Atsedenean 25-3 adierazten zuen markagailuak. Ingelesen jokoa zertxobait hobetzeko, Jack Rowell entrenatzailea jaitzi zen berdegunera, eta hori ez da batere arrunta izaten nazioarteko partidu batean.

Fitzpatrick: «91ko kanporatzea  
motibazio handia izan da»

K.A. / DONOSTIA

Mundialean joko aparta erakutsi zuen Zeelanda Berria eta nazio askok egin nahi izan zuen euren jokoa. Bigarrenean, ordea, Australiak kanporatu egin zuen finalerdietan, eta harrez gero, indarra galdu zuen. Gauzak zeharo okertu zitzaizkien 94 denboraldian, partidu askotxo galduz.

Zeelanda Fitzpatrick kapitainak sartua zeukan arantza barruraino, 91koan kanporatuak izan ondoren, «Kanporatze hark izugarri motibatu gaitu gaurko garaipena lortzeko. Irabazi egin nahi genuen kosta ala kosta, aurreneko 20 minutuetan erakutsi dugun bezala. Orain urte batzuetara itzuli beharko genuke horrelako garaipen arrakastatsua ikusi ahal izateko».

Laurie Mains entrenatzaileak hau zioen partidu amaituta: «Orain dela sei hilabete hasi ginen norgehiagoka hau prestatzen. Hasieratik erakutsi nahi genien Ingelesei joko dinamikoa egin nahi genuela desorekatzeko, eta batez ere, ez arrunta. Ez da ahaztu behar, Lomuk eginiko hiru entseiu, taldekideek prestatutakoak izan direla, bere erasorako trebetasuna erakus zezan.

## LABURREAN

JIMENEZEK irabazi  
du Voltako etapa  
erregina

Banesto taldeko Jose Maria Jimenezek irabazi zuen Kataluniako Voltako laugarren etapa. Jimenez indartsuena izan zen 2.000 metrora zegoen Boi-Taulleko helmugan. Avilakoarekin batera Chiapucci helmugaratu zen. Kilometro asko aurretik egin zituen Garcia Casasek, 15 segundura sartu zen. Jalabertek lidergoan jarraitzen du eta Mauleon da lehen euskal herritarra ●

SUITZAKO Itzulia:  
Lombardi garaile  
azken metrotan

Alex Zullek jarraitzen du Suitzako Itzuliko lider moduan Giovanni Lombardik (Polti) zazpigarren etapa irabazi ostean. Zug-eko helmugara taldetxo bat iritsi zen tropelaren aurretik. Lombardi izan zen azkarrena MG taldeko Jaerman suitzarrari esprint estuan irabaziz. Taldetxo horretan italiarrak nagusi ziren. Casartelli, Gotti eta Belli sailatu ziren hurrengo postuetan ●

TAUZIATEN  
garaipena  
Eastburnen

Nathalie Tauziat tenislari lapurtarrak ondo hasi du Eastburneko torneoa. Atzo jokatu zen torneoko lehen txanda eta bertan Tina Krizan eslovakiarra kanporatu zuen Tauziatek. Bi setetan irabazi zuen lapurtarrak partidua, 6-3 eta 6-2. Torneo honetako 11. zerrenda burua da Nathalie Tauziat. Patty Fendick, Karin Kachwendt, Pan Shriver, Elna Reinach eta Nena Miyagi tenislariak ere sailkatu ziren Ingalaterrako torneo honen hurrengo txandarako ●

COREY PAVINEK  
irabazi du  
EEBBetako golf  
irekia

Titulu handi bat irabazi ez dutenen arteko golf jokalaririk onenetakoa zen orain arte Corey Pavin estatubatuarra. Igande gauean amaitu zen EEBBetako irekia irabazi ondoren, badu jada bere lehen titulu handia. Torneoko azken ibilaldia, laugarrena, 68 kolpekin egin zuen Pavinek ●